


IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA



IGARTUBIZIA ... MIRIAM CANOren ESKUTIK

Miriam Cano zaharberritzailea izan zen Igartubeiti baserriaren azkeneko akaberaren arduraduna, hau da, eraikinari “bizi izandako leku” itxura ematearen arduraduna, hain zuzen denboran zehar atzera egin ahal izateko, egitura mantentzeko, egindako manipulazioa aienatzeko, eta lehengo baserriarren munduan eta eguneroko bizimoduan murgildu ahal izateko.

Makilaje lan handia izan zen, xehetasunik txikienetarako helduz zertua, baserriko angelu muinerainokoa, hala kanpoaldean nola barnean.

Nola eta noiz ezagutu zenuen Igartubeiti?

Manu Izagirrearen bitartez izan nuen lehen kontaktua. Berak Giorgio Studerri baserri barneko zoru zahararen bi erreplika egitea eskatu zizkion. Zoru horretan aurretiko eraikuntza baten aztarnak azaldu ziren. Proiektu horretan parte hartu nuen eta amaitu zenean, baserria desmuntatu, tratatu eta berreraiki ondoren, GFAk (Gipuzkoako Foru Aldundiak) eraikuntzaren zahartze lana proposatu zidan. Horretarako baserriko gune ezberdineko akaberekin ohol zaharren gainean zenbait eredu prestatu behar izan nituen eta GFAko teknikarien iritzia eskatu utzi.

Zer suposatuz zenuen zuretzat Igartubeitin egindako zaharberritzeak?

Egia esateko, lanarekin hasi ginenean, ez ginen kontziente izan esku-hartzearen benetako neurriaz. Nire zaharberritzaile lanbidearekin hertsiki loturarik ez duen jarduera bat da, ohiko lanaren guztiz kontrakoa egin behar nuelako eta, orain gogora ekarriz,

enkargua baloratu gabe onartu nuen, erronka gisa. Dena den, behin hasiera eman genionean eta zailtasunak izan arren, bagenekien lortuko genuela.



Sukaldean zarakar beltza ematen

Zer izan zen konplexuena?

Zalantzarik gabe baserri guztian zehar birsortu beharreko patinen dibertsifikazioa. Esku-hartze aurretik multzoak aurkezten zuten itxura egur berri eta zaharren (gutxi eta barreiatuak) nahasketa bat zen. Beraz, batasun biribila eta elementu berri hauen mimetizazioa lortu behar ziren multzoaren itxura berdina baina ez artifizia eskuratu arte. Horrez gain,

lanak iraun zuten hiru hilabeteetan 300 urteko antzinatasuna gehitzen saiatzea.

Bestalde eraikuntzaren guneko bakoitza egoki zahartu behar ziren, ez zen berdina logelak tindatzea edo sukaldea eraldatzea. XVI. mendeko fatxadarako egur berria artifizialki zimeltzea edo sukaldeko suaren kedarra erreproduzitzea bezain ezberdina zen.

Ba al dago baserrian zuretzat balio berezia duen objekturik?

Hainbeste urteren ondoren oroitzean zaila da zehaztea. Baina, uste det sukaldea dela. Zarakarraren berregitea, giroaren belztearekin batera sutatik aldentzen ginen einen intentsitatea gutxiagotuz benetan zaila izan zen. Babesteko asmoz egoki jantzirik lan egin behar genuen, sabaia eskuz egitearen lana izugarri zailduz.

Emaitza ikusirik ahaleginak merezi zuela deritzot.

Pasadizorik gogoratzen al duzu?

Beno, ez dakit pasadizorik diren. Lana oso gogorra zen eta hala eta guztiz ere oso oroitzen onak ditut. Lankide batekin lan egiten nuen eta oso ondo pasatu genuen.

Dena den, ahalik eta errealismo handiena lortzen saiatzerakoan beti zerbait genuen faltan, suaren usai eta gantzaren dirdira, adibidez. Horretarako, suaren inguruan benetako patina lortu ahal izateko, egunero harategian gantza hondarrak erosten genituen eta sutan erretzen genituen gantzaz blaitutako kea sukaldeko eremuetan pausatzen utziz. Eta sukaldeko usaina..... behar den bezala.....



Miriam eta bere lankidea babestuak zarakarra ematen

Nolakoa da sentsazioa lgartubeitira sartzean?

Kanpoko jendea bertara eramanez, baserria bisitatu dut zenbait aldiz, erakusteko gure kulturako erreferente egokia dela uste dudalako. Aldi bakoitzean, normala izango da, bertan igarotako denboraz oroitzen naiz, igarotako zailtasunaz eta hotzaz, baita momentu onez ere, harrokeria iruditu daitekeen arren, lanak suposatzen zuen erronkari aurre egiteaz harro nago

Zein objektu edo eraikuntza gustatuko litzaizuke zaharberritua ikustea?

Zaharberritzailea naizen aldetik, gure ondare guztia zaharberritzearen, eta mantentzearen alde nago. Ulertzen dut une hauetan zail adela, baina ez dugu ahaztu behar gaur galtzen dugun hori etorkizunean ez dela berreskuragarria izango eta urteak joan ahala litekeena da damutzea.